

Erromanikoaren distirak

El arte románico es uno de los logros clave del arte cristiano de Occidente (siglos X-XII), precisamente en el momento en que aquella sociedad arrancó hacia un crecimiento demográfico y económico, dentro de unas relaciones de tipo feudal, en las que el poder y la realidad social se definían de carácter cristiano. También Euskal Herria llegó a expresarse en aquel arte nuevo, tanto en obras magnas como en construcciones rurales.

Artea erlijiotasunaren zerbitzuan ere landu da kultura askotan, eta erlijioak gogoz baliatu dira arteaz. Erromanikoaren kasuan halaxe gertatu zen, X-XII. mendeetan. Horren aurreko ahalegin artistikoen gain arte erromanikoa ez zen ezerezetik jaio, baizik eta berorren aurreko ahalegin artistikoak eta Ekialdeak eskainitako tekniken bidez (Bizantzio, Armenia), milagarren urteko beldur eta izuei gaina hartu eta gizarte indarberritu batean sortu zen arte-mundu oso hori. Euskal Herriak ere izan zuen hor tokirik.

Europa erromanikoa

Berrikuntza nabarien artean jaio zen erromanikoa. Feudalismoak eratu zuen gizartean, betiere Elizarekin kontatuz eta aginte zibil-erlijiosoen artean oreka bilatuz (ez, noski, gatazka eta tirabirarik gabe). Ordena berria sortu zen, gizarteko indar eragileen arteko egonkortasunaren gainean eraikia, aginte-piramidea segurtaturik, denbora eta espazioa hobeki antolatuta; beste modu batera begiratu zen garaia eta geroa, mundu hau eta bestea.

Eta erlijiotasunak lotu-trabatu zuen hori dena, Eliza protagonista zela. Arte eta Eliza erromanikoen garaiak ziren. Eraikin handi izugarriak eta txikitxo batuak ezagutu ziren, Gotzaindegi eta Hiri handietan nahiz auzo xumeetan.

Ireki eta indartzen aru zen Santiago Bidea, milaka erromes, merkatari eta ibiltari bidearen ibilian jarriko zituen, guztientzat zerbitzuguneak sortu ziren (ostatuak, ospitaleak, aterpeak, oititz-

guneak), eta erliki estimatuagoak zeuden hirietan eliza erraldoiak. Garaiko fedea, interes ekonomikoa eta politikoei bultzatuko dute hori dena. Eta Europa ia osoan ari da hori gertatzen.

Europa kristautu berriaren lehenengo batasun-proiektua dela esan dezakegu: guztiek ikasi dituzte teknika berak, Errege eta Jaunen antzeko politikei emaitza artistiko eta erlijioso berdintsuak emateko joera dute.

Erromako Aita Santuek ere Erreinu kristau ezberdinetara iristeko tresna instituzional berriak erabiliko dituzte, Elizaren batasun-molde erdirakoi bati bidea urratuz, Gregorio VII. erreformaren bidez eta apurka-apurka eliz boterearen zerbitzuko Zuzenbidea osatuz.

Monjeak izango dira Erroma eta Europari batasun-ahalegin horretan biziki lagunduko diotenak. Erromanikoa bete-betean dagoela, lehendabizi Cluny-ko erreforma beneditarra dator, 909tik aurrera, eta Zister-ak bere lekua irabazi zuen XII.lean (1098...). Biek ere, Gotzaiengandik aske eta zuzenean Aita Santuengandik daudela bizi eta lan egingo dute, Monasterio nagusiak eta berauen mendekoak sare berean lotu eta eliz erreforma berriak Erromaren esanetara jartzeko.

Lehen unean Enperadore, Errege eta Jaun feudalek eskuratutako eliz eskubideak Erromak berreskuratzea izango da eliz politikaren xedea; horretarako, ahal zelarik Erreinuekin akordioak adostuko dira, bi aldeen probetxutarako garapen-prozesu berrien bila.



Nafarroako Koroaren eraginez ere Euskal Herria europartzen hasi zen XI. mendean. Eta nola, gero! Cluny-k joan-etorri azkarreko zeregina izan zuen horretan.

Euskal Herri erromanikoa

Kataluniatik Galiziaira doan iparraldean Penintsulako erromanikoaren sorterria da, Santiagorako hainbat bidetatik zetozen ideia eta sentiera estetikoa gidari zirela moldatua, eta hor Euskal Herria bihotz-bihotzean zegoen.

Izen eta eraikin ederrak daude Piriniotako mendialdean eta hegoalderagoko lautadetan. Lorpen ugari eta distiratsuak dira: Sta. Maria Ripoll-ekoa (1032), Taull-eko Andre Maria (margo-lanak, 1123), Jaka-ko katedrala (1094), Leireko eliza (1057), Eunate-ko Andre Maria (c. 1170), Frómista-ko San Martin (c. 1090), Santiagoko Ataurrea (c. 1185), etab.

Gurera gatzela, gogora dezagun Iparraldean 19 elizatan aurkitu direla eraikin edo hondakin erromanikoak. Hiru halako aipa daitezke hemen: Ospitalepe-ko Done Bladi eta Santa Graziko eliza, biak Zuberoan, eta hirugarrena Lapurdin, Lehun-tzeko premontratarren Monasterio izana.

Nafarroa Garaia da euskal erromanikoaren erreinua, eraikin ugari eta burutuenak dituena, Zangoza, Uxue edo Aralartik hasita Lizarra, Aguilar de Codes edo Torres del Río-eraino, Iruñeko katedral erromaniko galdua aipatuta utzi eta Erribera urriagoan Tuteran edo Tulebras ahaztu gabe. Hain Erribera behera joan gabe, ikustekoa da Puiu aurrez aurre dagoen Olleta, bere barnetasun bildu eta isila dastatzeko. Aurrera goazela, bide-bidean topatuko dugu Gares, bere zubi airoso eta Santiagoren elizarekin.

Erromanikoaren hurrengo urratsa Arabakoa izango da. Jada Lautada irekian Gazeo ikustatu beharko dugu, Aguraindik berehala. Bertako margolanek harrizko gaituzte batik bat: benetan Euskal Herriko poema teologikoa da Gazeoko hau;

berehala dator Estibaliz, noski, bere "Ataurre eder-rakin" (*Porta speciosa*) eta Armentia. Araba utzi aurretik, komeni da Tuesta-ra sartu-irten bat egitea, erromaniko-gotikoen muga-mugan jasotako elizara.

Gipuzkoa eta Bizkaia pobreagoak dira; baina garaiko haize berriak heldu ziren herrialde hauetara ere. Hemen erromanikoa batez ere baserri-auzoetako izan zen, ekonomia apal batek eraikitakoa, erlijiositasun herritarra lagundu zuena: ermita, zimiterio eta hilarrietan ditugu orduko lekukoak. Inoiz parroquia ere bihurtuko ziren Ermitak izan ziren Bizkaian auzo eta elizateei nortasuna segurtatu zietenak; haietako asko gure egunetaraino heldu da, nahiz eta ez den samurra beti haien sorrera-data eta urteak finkatzea.

Bere sortzean erromanikoak izan ziren eraikin batzuk: Abrisketako San Pedro (Arrigorriaga), Ugarteko San Bizente (Muxika), Zumetzagako San Migel eta San Pelaio (biak Bakion), eta itsasalde horretan daukagu San Joan Gaztelugatxekoa; bukatzeko, ez da falta han-hemen hondakin erromanikoren bat edo beste: Galdakao, Mungia, Fruiz, Lemoiz, Gauteziz Arteaga edo Igorre, eta besterik.

Gipuzkoan laburragoa da zerrenda: erromanikotzat seguru eman daitezke Bedoñako leihoak (Arrasate), Bedarretako hilerria (Aretxabaleta) eta Zegamako kanpo santuan ur bedeinkatu ontzia egiten erabilitako kapitela. Aipatu ohi diren gainerrakoek data ziurtaturik gabeak dira (Tolosa, Idiazabal edo Ormaiztegi).

Bego esanda aro erromanikoan aspalditik mantso eta seguru zetorren erlijio-biziera herritarrek bere heldutasuna lortu zuela, batzuetan apal-apal, bestetan eraikin handiagoeekin, indartsuago Nafarroan. Azkenik, euskal lurraldeari kristautzearen marka iraunkorra emateko balio izan zuen Erromanikoak, gizarte kristautuari eder-aurpegia emanda.

Joseba Intxausti